

ERREMENTARIEN ZALAPARTAPEAN

Herria ezagutzen



ERREMENTARIEN ZALAPARTAPEAN

Herria ezagutzen

Argitaletxea: Arrasateko Udala. Hezkuntza Saila.

Egilea: Arrasateko Udala. Hezkuntza Saila.

"Hik Hasi" aldizkariarekin elkarlanean.

Ilustrazioak: Aitziber Alonso

Diseinua:  zure balioen marka

Argazkiak: Arrasateko Udal Artxiboa, Indalecio Ojanguren eta Arrasateko Udalaren Hezkuntza saila.

Inprimatzailea: Gertu

LG: SS-1025/2010

Oharra: 7, 8-9. orrialdeetako ilustrazioa Arkeolan enpresak (1760-1850) aldiko Arrasateri buruz egindako marrazkietan oinarrituak daude.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

hh
hik hasi



- Zergatik daukate izena Santxa eta Martin? (Santxa Otxoa de Ozaeta y Marzana eta Martin Bañez de Artazubiaga)**

- Noiz ikusten dituzue kalean erraldoi hauek? Zer egiten dute kalean? Ba al dago beste erraldoirik?**


- Jarri zure izena eta lagun batena, gura baduzu.**

Ikusgai dituzun argazkietatik, zeintzuk daude herrian?



Zer dakizu argazki horietan azaltzen denari buruz?

**Gure herriaren
armarria
bertan daukazu,
saiatu koadroan
marrazten.**



Zein elementu azaltzen dira?

- Arrasate, Leintz bailararen barruan, Nafarroako erresuman izan zen 1200 urtera arte, Gaztelako erreinuak konkistatu zuen arte.



- Zein 4 herrik osatzen zuten Leintz bailara Nafarroako erresumaren baitan 1200 urtea baino lehen?


1

3

2

4

- Gaztelako erresumako Alfontso X.a erregeak herriari Hiri-Gutuna ematerakoan, Arr(e)sate zen lekuari Mon(t)dragon izena jarri zion, eta Nafarroako erregeak Gasteiz hiriarri emandako foruak berretsi zituen.



- Topatu hizki-zopan gaztelako erregeak herriari ipini zion izena.

A	R	E	T	X	A	B	A	N
R	A	S	X	U	G	E	O	I
A	I	K	I	K	Z	G	L	T
G	T	O	K	R	A	Z	A	O
R	A	R	I	R	T	B	E	L
E	N	I	D	E	A	O	T	G
D	I	N	E	M	G	M	A	E
B	O	A	N	S	P	R	K	T
M	U	R	U	E	N	Z	O	A

Zein da?


Garai hartan herria babesteko harresiak egin zituzten. Haien barruan hiribildua osatzen joan zen.




Begira zein forma zeukan hiribilduak!

Etxeak harresiaren barruan zeuden.

Margotu irudi honetan ezagutzen dituzun elementuak eta idatzi izenak.



 Nolako zen gure herria?





Zelakoa zen herria?



Erasoetatik eta lapurretatik babesteko harresitu zuten herria.
Hasieran hiru kale zituen: Erdiko kalea (Artekale), Ferrerias (Arozkale) eta Iturriotz.

Herria handitu zenean, harresietatik kanpo errebalak eraikitzen hasi ziren: Zarugalde, Gazteluondo eta Maala.



Harresiak sei ate zituen: Portaloikoa, Zurgin kantoikoa, Iturriotz kantoikoa eta desagertuta dauden Gazteluondokoa, Olartekoa eta Zearkostetakoa. Ateak gabez itxi egiten zituzten eta goizean zabaldu.

Sua bazegoen itxi egiten zituzten, herritarrek sua itzaltzen lagun zezaten.
Bi erreken artean eraikitako herria zen eta Aramaio errekatik hiribildura pasatzeko hainbat zubi zeuden.



Herria polita zen. Hiribilduaren barruan parrokia eta dorretxeak eraikitzen ari ziren. Denak harlauzkoak ziren; baita herriko zorua ere.

Santa Barbaran (Goikobalun) gaztelu bat zegoen.
Garai hartan Arrasate mugako herria zen: Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa artekoa, hain zuzen ere.



Harresia sendoa zen. Horren aztarnak, harresi-aretoan ikus ditzakegu.

Harresietatik kanpo, Santa Marina basiliza zegoen.

Arretaz irakurri ostean, erantzun honako galdera hauei:

Zein da hiribildu barruko eraikin zaharrena?

San Juan parrokia

Santa Marina basiliza

San Balerio eliza

Zein izen zeukan Ferrerias kaleak?

Olarte

Arozkale

Iturriotz

Non zegoen gaztelua?

Monterronen

Murugainen

Santa Barbaran

Zenbat ate zeuzkan hiribilduak? Eta gaur egun?

Lehen 7 eta orain 5

Lehen 6 eta orain 3

Lehen 5 eta orain 3

Zein basiliza zegoen harresietatik kanpo?

Santa Marina

Andra Mari Zuri

San Antolin

■ Bandoen arteko gatazkak hasiak ziren, eta jauntxoek herritarrak zapaltzen zituzten, beren lurak kontrolatzeko. Horri aurre egiteko Ugaran bailarako Gesalibar, Garagartza, Uribarri eta Udala herriekak zein Isasigaña, Erenuzketa eta Oleagako tokiak 1353. urtean herrian integratu ziren.



ARRASATE

■ Hutsuneak letrekin betetzen badituzu Ugaran bailara mugatzen duten bi mendien izenak eta berori zeharkatzen duen erreka izena aurkituko dituzu.



U _ _ L _ _ _



_ _ R _ G _ _ N



A _ _ M _ _ O

- Udalatzæen meatzetako mea kalitate handikoa zen. Mea burdinoletan landuz burdina-altzairua ateratzen zuten. Burdinoletan altzairua lantzea eta hura saltzea izan zen urte askoan Arrasateko herritarren jardun nagusia.



Argazkiari behatu ostean, esango al zenuke zein auzotan zeuden meategi hauek?

- Ordenatu honako hitz hauek, eta meategiei buruz gehiago jakingo duzu.

Egiteko Udalatxeko mea ateratzen zuten burdina-altzairua meategietan.

lantzen burdinoletan eta masukeretan zuten. tiraderetan Minerala

burdina zen ikatza, eta labeetan temperatura izatea. Burdinoletan ekoizteko 1.300 graduko beharrezkoa ur ugari

auzoko eta baserrien artean ugari zeuden Meatzerreka Salturri Galarraga meategi antzina

Arrasateko Europako zen eta gehien bat erabiltzen Garai hartako altzairua onenatarikoa armagintzarako zuten

Herrian egiten zen altzairuaren kalitatea mundu osoan ezaguna zen. Horretarako teknika propioa erabiltzen zuten errementariak.

Meatzariek mea ateratzen zuten Udaltx magaleko meategietatik, herriko burdinoletara eramateko.




Lehenengo, mendi gainetan kokaturiko haizeoletan lantzen zuten burdina.

Burdinolak erreken ondoan sortu ziren, ura beharrezkoa zelako garai hartako tresneria mugitzeko. Deba eta Aramaio erreken ondoan burdinolak eraiki zituzten: Arrasate, Gesalibar, Ibarreta (Uribarri), Legarra (Musakola), Olarte (kalean) Zalgibar (Zaldibar), Zubiate (Uribarri).



Arrasateko altzairua lortzeko, lehenik, burdinoletan mea eta ikatza sartu behar zuten. Hortik "ARRAIA" ateratzen zuten. Ondoren burdinola txikietan "arraia" landutakoan altzairua ateratzen zuten.

Mundu osoan ezaguna esaldi hau:
"Vencedora espada de Mondragón tu acero y en Toledo templada".
Arrasaten ekoiztutako altzairu gehiena Espainiara eta Europara saltzen zen.




Ezabatu burdinolari ez dagozkion hitzak:

KASKOA
PAPERA
IKATZA

SUA
BOLIGRAFOA
ORDENAGAILUA

URA
HAUSPOA
LABEA
MEA
MAILUA

Ferrerias kalea hiribilduaren barruan, Arrasateko kalerik zaharrenetakoa da. Erdi Aroan, errementariak kale horretan eta atzealdean, gaur Ola(rte) kalea dagoen tokian, egiten zuten lan. Burdinola txikiak zirenez, asko zeuden herrian, eta urte batzuren buruan 70 izatera iritsi ziren.



Ferrerias kalea non hasten da? Non bukatzen da? Zergatik dauka izen hori? Eta Olarte kaleak zer esanahi izan dezake? Eskatu informazioa, eta erantzun banaka edo taldeka.

Burdinoletan lan mota asko egiten zen, eta bakoitzak bere izena zeukan. Gaur egun, errementari hitza da lan mota horiek egokien definitzen dituenena. Erdi Aroko herritarren lanbiderik garrantzitsuena zen, eta langintza horretan gizonak eta andreak jarduten zuten.

Bete itzazu hutsuneak alboan dituzun hitzekin. Zein jaietan abestu eta dantzatzen da?

ERREMENTARI

HERENSUGEA

ITXUNGI

ARGI

AUSPOA



DANTZA

Errementari jauna klunka eta klunka _____ mailukiakin begirik ez dauka. Gure _____ oso berotzen ez bada etxera perratuta bueltatuko gara.

Suakin dantza ta jai martxan jartzen ditu bata _____ da ta bestea ixotu.

_____ sua poliki emunik behin erre ginen eta berriz erre barik.

- “Antzina ba omen zegoen Murugain izeneko mendian Arrasateko herritarrak uzatzen zituen herensuge bat. Animalia erraldoi horrek urtero zerga bat ezarria omen zien arrasatearrei, herriko neskaen bat eman behar zioten jateko.”



- Irakasleak unitate didaktikoaren gida didaktikoaz baliaturik, kondaira irakurriko du.
- Hemen duzun hieroglifoa ebatziz gero, 1260tik aurrera gure herriari nola deitzen zioten asmatuko duzu. (Erne! Gaztelaniazko hitzak elkartu behar dituzu).



- Guraia (oñartzarrak) eta Bañez (ganboatarrak) leinuen artean ikusierin handia zegoen.

Gurairrek deituta Gomez Gonzalez hiribilduan kokatu zen. Baineztarrek abisua helarazi zioten Oñatiko konde ganboatarrari eta honek hiribildua inguratu zuen. Barrukoak errenditzen ez zirenez 1448ko ekainaren 23an su eman zioten hiribilduari.



- Azaldu San Joan bezperan, jaietan, zein ekintza egiten duten.

- Zein duzu gogokoen?

- Neguko solstizioarekin loturiko feria hau antzinatik egiten zen Meatzerrekan. Gero herrira ekarri zuten.

Meategietako giroan eta itzalean sortu zen Santamasetako azoka. Orduko meatzariek meategietako lanak eta baserriko lanak tartekatzen baitzituzten.

- Arrasaten zein egunetan ospatzen da Santamas jaia?

- Deskriba itzazu egun horretan kalean zer gauza edo ikuskizun ikusten dituzun.

- Santamas jaietan dantzatzen da TXERRI DANTZA. Osatu hutsuneak eta gero abestu. Hauek dira jarri beharreko hitzak:



JAIXA, DENPORA, OHITTURAK. TALUA,
UMORE eta TXARRIXA.

TXERRI DANTZA

Gizendu jaku

saltoka dabil
herrixa
aintxeinako
itturrixa

barri barrixa

arto, uruna,
eta baserriko
lanak,
erakusten
bagabiltz baña
lekutan daz
horreik danak

Sasoi bateko

etorten jaku
gogora
tertulixan egoteko
bazan nahikua

Orduko
erromeixak
dantza sueto eta
ardau,
haxe zan

sanua
oin barriz dana
libre dau

SANTAMASAK

Historia, legenda? Arrasatekoa bakarrik ote da? Pero Belez de Gebara, Oñatiko kondeak jabetza ugari omen zeukan Arrasaten eta urtero etortzen zen Zaldigar inguruko sorora belar pixka bat moztan bere jabetzakoa zela adierazteko. Horrek sutan jartzen zituen arrasatearrak, burlatzat hartzen baitzuten.

Zer egin eta Zaldibarko soroa dema baten bidez eskuratzea bururatu zitzairen arrasatearrei, doke jokoaren bidez. Eta, horrela, soroa irabazi zioten kondeari Arrasateko herriari itzultzeko.

Erreparatu egiezu jokoaren arauei (kontrazalean) eta jolastu zure gelakideekin.



Zein dagokio zeini? Elkartu gezi baten bidez argazki bakoitzari dagokion izena eta azalpena.



Parrokia

Kulturate udal zerbitzua bere ondoan dago.

Iturriotz kalean dago.



Andikano Zelaa



Portaloia

Erdiko kalearen ia erdian dago, bere balkoiak egurrezkoak dira.

Hiribilduaren aterik ezagunena da.



Bañez de Artazubiaga



San Frantzisko

Arrasateko eraikinik zaharrena, hiribilduaren barruan.

Maalako errabalan dago.



Okendo

Zein elementu aldatu dituzte? Biribildu eta idatzi behean.



 Herriko hainbat eraikin.



 Hiru horietatik bat aukeratu, eta bildu ahal duzun informazio guztia. IZENA:

.....

.....

.....

Gaur egungo argazkia:

IRTEERA DIDAKTIKOA


 Gorriz margotu, irakasleekin egin duzun ibilbidea.



 Ibilbide honetan ikusi duzun gauzarik politena edo interesgarriena margotu.



- Erdi Aroko eta Aro Modernoko hainbat eraikuntza galdu dira Arrasaten. Batzuk eragin handia izan zuten herrian denbora askoan (Goikobaluren gaztelua, Jerra Enea).



- Irudikatu eta marraztu zure gaztelua Goikobalun.



Hiribildua sortu zenetik hiri harresitutik kanpo bizirik ziren hainbat bizilagun hiribildura bizitzera joan ziren. Beste batzuk, berriz, bere lurretan gelditu ziren.

Hiribilduko eta landako biztanleek hainbat lanbide zeuzkaten:

HIRIBILDUKOAK: eskulangintzan, merkataritzan, elizan...

LANDAKOAK: abeltzaintzan, nekazaritzan, meategietan, burdinola handietan burdingintzan jarduten zuten.

Zenbait lanbide ez daude ondo kokaturik. Ea aurkitzen dituzun.



HIRIBILDUAN

harakinak
 abeltzaina
 iruleak
 zapatariak
 abarkagileak
 ehiztariak
 larrugileak
 Eskribauak
 zurginak-arotzak
 harrijoleak
 olajaunak
 mandazaina
 benakeroek (meatzariak)

LANDAN

nekazariak
 aitzogileak
 jostunak
 apaizak
 olandreak
 ikazkinak
 meatzariak
 artzainak
 zapataginak
 ikatz garraiolariak
 arrantzaleak
 olapeoiak
 okinak



Hainbat lanbide gaur egun arte iritsi dira, beste batzuk, oster, galdu egin ziren. Zein lanbide daude gaur herrian?






Zure gurasoek zer lanbide dute?

Zuk horietariko bat aukeratuko zenuke lan egiteko? Horietariko bat ez bada, zer lan aukeratuko zenuke?

Aspaldi-aspaldi, errementariak altxorra erkutatu zuten Arrasateko toki batean. Ea topatzen duzun.



Mezu sekretua! Koloreztatuta dauden letrak elkartuz jakingo duzu altxorra non dagoen.

-  = A
-  = E
-  = I
-  = O
-  = U



Saia zaitetz kutzaren barruan dagoen mezua argitzen.

NAZI NENIG, ARAG ATE OGNAZI ARAG,
KANUDLAKSUE.

Santxak eta Martinek aurkitutako altxorra herrira ekarri zuten. Ba al dakizu non utzi zuten?



Markatu esandakoak ✓ egia edo ✗ gezurra diren.



Zenbat ikasi dugun gure herriaz!

	✓	✗
Meategiek garrantzi handia izan dute Arrasateko historian.		
Herri harresitua zen eta bost ate zituen sartzeko.		
Hiribilduak sagar forma zeukan.		
1353an Meatzerreka atxiki zitzaion Arrasateri.		
Burdinoletan burdina ekoizteko beharrezkoa zen ikatza, ur ugari eta labeetan 1300 graduko tenperatura izatea.		
Erdi Aroan eta Aro Modernoan Arrasaten ateratzen zen altzairua kalitate eskasekoa zen.		
Dragoiaren legendak dio herensugea Udalatxetik jaisten zela.		
Antzinako Santamasak Meatzerreka auzoan egiten ziren.		
Hiribilduko eraikinik zaharrena herriko parrokia da.		
Erdiko kalean burdinola txiki ugari zeuden.		



Nola aldatu den gure herria!

Ezagutuko al zenituzke eraikuntza hauek?



.....

.....

.....

.....

JOKOAREN NONDIK-NORAKOAK:

- Belardian lerro bat egokitu soka batekin.
- Lerro horren erdian laukizuzen bat egokitu.
- Laukizuzen horren erdian laban bat kateatu.
- Hamar metroko luzera utzi txanponak jaurtitzeko.
- Normalean bi bikote (4 jokalaria). Bikote gehiagok joka dezakete horiekin batera.
- Jokalari bakoitzak bi fitxarekin jokatu du.
- Bikoteek tirada kopuru bera egin behar dute.
- Zein bikote hasiko den zozketaren bidez zehaztuko da.
- Lehenbiziko bikotea hasiko da jokoan eta bigarrena gero.

JOKOAREN HELBURUA:

Txanponak laukizuzenaren barruan edo lerroan jaustea, eta labana botatzea. Lorturiko puntuen zenbaketa egindakoan, laban ingurura edo lerroa gehien hurbiltzen dena irabazlea izango da.

JOKALEKUAREN NEURRIAK honako hauek izango dira:

- Labana eta tiralekuaren arteko distantzia 10 metrokoa da.
- Doke marra 2 metroko zabaleran egongo da.
- Barruaren laukiak 20 cm-ko zabalera eta 10 cm-ko altuera izango ditu.
- Hamar metroko distantziatik txanponekin jaurtiketak egin behar dira.

JOKOAREN ZENBAKETA:

- Puntuazioa 50 puntura arte izango da.
- Barru (laukizuzenaren barrualdea). - 4 puntu;
- Doke (marra zuzenaren gainean egotea 2 puntu).
- Labana ukitzea 5 puntu;
- Dokeari hurbilketa: hurbilketaren puntuazioan puntu bat emango zaio doke marraren hurbilen dagoen

fitxari bakarrik. Hurbilen dauden bi fitxak jokalaria batenak izanez gero, jokalaria bi puntu jasoko ditu.

- Dokeak edo marra gaineko fitxak kontrako jokalaria marra ondoan dagoen fitxa eliminatzen du.
- Bikote bateko jokalaria bat 50 puntura lehena iritsi arren, beste bikotearen azkeneko jokalaria bota arte ez du irabaziko partida, eta bikote horren jokalaria puntuaketa beste bikoteak baino gehiago ateraz gero, irabazi egingo du.
- Berdinduz gero, bi bikoteek beste tirada bat edo behar beste jaurtiketa egin beharko dituzte, berdinketa apurte arte.

Ohitura da Ostiral Santuan jokatzea, eta, gaur egun, elkarte gastronomikoetako kideek Udaltzaren kontra jokatzen dute dokean, Monterron aldeko Kondekua belardian.

Antzina txanponak urrezkoak ziren, baina oraingoak burdinazkoak dira. Itxura denez, udaletxean zeudenak gerra garaian desagertu ziren.





ERREMENTARIEN ZALAPARTAPEAN

Heria ezagutzen

1. Izan ginelako
2. ERREMENTARIEN ZALAPARTAPEAN
3. Handitzen-handitzen
4. Gure altxorra
5. Izan ginelako gara
6. Ekin eta ekin



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

hh
hik hasi

di·da zure balioen marka

www.arrasate.eus